



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

Sozietateen Mozkinen gaineko Zergaren Foru Arau aurreproiektua

Eragina zerga-bilketan eta generoan



1. SARRERA

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerga-bilketan Sozietateen Mozkinen gaineko Zergaren Foru Arau aurreproiektuak. Horrek, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, ordezkaturiko luke.

Helburua da kalkulatzeko zenbateraino aldatuko den zerga-bilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordezkari arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketak nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, neurri horiek hartu eta indarrean daudenekin alderatzea baizik.

Indarrean dagoen araudia eta proiektuan proposatutakoa alderatuz bien arteko diferentziarik esanguratsuenak identifikatu ahal izan ditugu.



2. ZERGABILKETAN ERAGINA DUTEN ARAU ALDAKETAK

Zerga-bilketan eragina izango duten ondorengo araudi aldaketak identifikatu dira:

2.1. Salbuespena aparteko mozkinen berrinbertsioarengatik

Berrinbertitutako aparteko mozkinak salbuetsita egotetik bere osotasunean zergapetuta egotera pasatzen dira (5 urteko gerorapenarekin)

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +371.794 euro

2.2. Finantza gastuen kengarritasunaren mugak

Finantza gastuak bere osotasunean kengarriak izatetik muga bat izatera pasatzen dira: interes, zerga, balio-galera eta amortizazioen aurreko mozkinen (EBITDA) %30 edo 200.000 euroko, arau jakin batzuei jarraikiz.

Kenkaririk izan ez duten finantza gastu garbiak ondorengo lehen 5 urteetan amaitzen diren zergaldietan kendu ahal izango dira, dena delako zergaldiko gainerakoekin atera, eta gehienez aurreikusitako mugaraino.

Gainera, talde barruan egiten diren eragiketa zehatz batzuen finantza gastuen kengarritasunari ere muga ezartzen zaio.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +5.982.610 euro



2.3. Kenkaria zenbait partaidetzen narriaduragatik izandako galerak

7/1996 Foru Arauko 12. artikuluko 8. apartatuan ezarritako %20eko kenkaria ezabatu egiten da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +4.047.207 euro

2.4. Kenkaria merkataritza fondoagatik

Kenkari aplikagarria %20etik %5era jaisten da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +456.651 euro

2.5. Karga tasak

- Karga tasa orokorra %28tik (%24 enpresa txikientzat) eskala batera pasatzen da: guztientzat %24an zergapetzen dira oinarri likidagarriaren lehen 200.000 euroak, eta hortik aurrera %28an.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +2.776.914 euro

- Kooperatibentzat karga tasa orokorra %20tik (%18 kooperatiba txikientzat) eskala batera pasatzen da: guztientzat %18an zergapetzen dira oinarri likidagarriaren lehen 200.000 euroak, eta hortik aurrera %20an.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: -79.615 euro



2.6. %10eko hobaria kuotan mikroenpresentzat

10 langile baino gutxiago eta 2 milioi euro baino gutxiagoko eragiketa bolumena duten enpresak, hau da, mikroenpresak, %10eko hobaria izango dute kuota osoa zenbatekoan.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: -2.596.872 euro

2.7. Ezarpen bikoitzeko kenkaria mikroenpresentzat

Kenkaria kuota osoaren gainean kalkulatu beharrean, kuota osoa ken aplikatutako hobariaren gainean aplikatzen da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +81.023 euro

2.8. Hobaria bereziki babestutako kooperatibetan

Bereziki babestutako kooperatiben hobaria kuota osoaren %50a izatetik %30 izatera pasatzen da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +2.997.748 euro

2.9. Ezarpen bikoitzeko kenkaria kooperatibentzat

Kenkaria kuota osoaren gainean kalkulatu beharrean, kuota osoa ken aplikatutako hobariaren gainean aplikatzen da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +983.126 euro



2.10. Kenkaria kapital-arriskuko sozietate eta fondoei egindako diru-ekarpenengatik

Kenkari aplikagarriaren portzentajea %20tik %10era pasatzen da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +77.376 euro

2.11. Kenkaria teknologia garbietan egindako inbertsioengatik

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onartuz emandako Aginduan zehazten diren ekipo osoetan egindako inbertsioengatik kenkari aplikagarria %30etik %10era pasatzen da.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +23.268 euro

2.12. Kenkaria ikerkuntza eta garapen jarduerengatik

Ezabatu egiten dira bai %50eko kenkari gehigarria zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako batez bestekoa baino handiagoak badira, eta baita %20eko kenkari gehigarria ikertzaile kualifikatuen langileria gastuengatik eta Unibertsitateei, Berrikuntza eta Teknologia Zentroei... kontratatutako proiektuetan egindako gastuengatik ere.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +6.336.705 euro

2.13. Kenkarien ezabapena

Honako kenkariak bakarrik mantentzen dira: kapital-arriskuko sozietate eta fondoei egindako diru-ekarpenengatik; teknologia garbietan egindako inbertsioengatik; eta ikerkuntza eta garapen jarduerengatik.



Hau da, ondorengo kenkariak ezabatzen dira:

- Aktibo ez-korrante berrietan inbertitzeagatik.
- Inbertsio produktiboetarako erreserba.
- Kultur Ondasunaren babesa eta hedapena.
- Inbertsioak zinemagintzan eta liburuen argitalpenean.
- Berrikuntza jarduerak.
- Ingurumenaren zaintza eta hobekuntza.
- Lanbide heziketa gastuak.
- Ekarpinak gizarte aurreikuspeneko sistematar.
- Familia enpresaren protokoloa egiteagatik.
- Enplegua sortzeagatik.
- Berdintasun planak egin eta ezartzeagatik.
- Ekarpinak interes ekonomikoko elkarteei.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +13.272.217 euro

2.14. Muga kenkarien aplikazioan

2014. urtetik aurrera sortutako kenkari guztien aplikazioaren muga kuota likidoaren %25ean finkatzen da. Lehen muga %35eko zen (%45 enpresa txikientzat), edo mugarik gabe zeuden.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: +8.485.912 euro

2.15. Inbertsio eta enplegu erreserba berezia

Zerga oinarrian sartu gabe gelditu ahal izango da ekitaldian lortutako mozkinetik datozen eta inbertsio eta enplegu erreserba berezi baterako



zuzkidurara zuzentzen diren diru kopuruen %50, betiere baldintzak eta betebeharrak batzuk betetzen badira.

Ez-integrazio hori gehienez ekitaldiko kontabilitate mozkinaren %20 izango da (%10 kooperatiben kasuan), eta gehienez 2 urteko epean gauzatu beharko da, ondorengo ekintzetan:

- Aktibo ez-korrente berrietako inbertsioetan (higiezinak izan ezik).
- Ikerketako eta garapeneko jardueretan.
- Berrikuntza jardueretan.
- Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera bideratzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuetan.
- Enplegu sorreran.
- Enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko kontribuzioetan.
- Genero berdintasunerako ekintzetan.
- Enpresetan euskara sustatzeko jardueretan.

Aurreikusitako eragina zerga-bilketan: -13.827.033 euro



3. ERAGINA ZERGA-BILKETAN: BANAKAKOA ETA BATERAKOA

Aztertutako arau aldaketa batzuk elkarren artean konpentsatu eta gainezarri egiten dira, eta horregatik banakako zerga-bilketa eraginaren batuketa ez dator bat zerga-bilketa eragin osoarekin. Hurrengo taulan ikusten den bezala, zerga-bilketa eragin osoa 25.441.553 eurokoa da, eta banakako zerga-bilketa eraginaren batuketa 29.299.033 eurokoa da.

Zenbateko osoa urteko kuota efektibo positiboarekin konparazten badugu, aurreproiektu honek %18,8ko igoera ekarriko du.

Taula 1. Eragina zerga-bilketan urtean

	Eragina zerga-bilketan
Salbuespena aparteko mozkinen berrinbertsioarengatik	371.794
Finantza gastuen kengarritasunaren mugak	5.892.610
Zenbait partaidetzen narriaduragatik kenkaria	4.047.207
Merkataritza fondoaren kenkaria	456.651
Karga tasak %24 /%28	2.776.914
Karga tasak %18 /%20 (kooperatibak)	-79.615
Mikroenpresak: %10eko hobaria kuotan	-2.596.872
Mikroenpresak: ezarpen bikoitzeko kenkaria	81.023
Kooperatibak: hobaria kuotan	2.997.748
Kooperatibak: ezarpen bikoitzeko kenkaria	983.126
Kenkaria kapital-arriskuko sozietate eta fondoei egindako diru-ekarpenengatik	77.376
Kenkaria teknologia garbietan egindako inbertsioengatik	23.268
Kenkaria ikerkuntza eta garapen jarduerengatik	6.336.705
Kenkarien ezabapena (*)	13.272.217
Muga kenkarien aplikazioan	8.485.912
Inbertsio eta enplegu erreserba berezia	-13.827.033
BANAKAKO NEURRIEN BATUKETA GUZTIRA	29.299.033
NEURRI GUZTIEN BATUKETA BATERA	25.441.553

Zenbatekoak eurotan

(*) Ez da kontuan hartu Enpresak Sustatzeko Sozietateetara egindako diru-ekarpenen kenkaria; hori, indargabe geratu delako 2013tik aurrera 13/2012 Foru Arauaren bidez. Kontzeptu horregatik sortutako kenkari aplikagarria 14,7 milioi eurokoa izan zen 2011n eta 6,5 milioi eurokoa 2012an.



4. ERAGINA ZERGA-BILKETAN: 2014. URTEA ETA ONDORENGOAK

Aurreproiektu honetan proposatzen diren neurrietako batzuk eragina dute ez bakarrik urteko zerga-bilketan, baizik eta baita hurrengo urteetako ekitaldietan ere.

Esaterako, aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik dagoen salbuespena 5 urteko gerorapena bihurtzeak 1,6 milioi euroko eragin positiboa izango du: 371.794 euro lehen urtean eta 1.230.299 euro hurrengo ekitaldietako zerga-bilketan.

Aldiz, finantza gastuen kengarritasunari muga ipintzeak lehen urtean duen eragin positiboa (+5,9 milioi euro), ezabatu egiten da hurrengoetan, eta guztira ez du eraginik zerga-bilketan. Izan ere, enpresak 5 urte dituzte aplikatu gabeko zenbatekoak datozen ekitaldietan aplikatzeko.

Guztira aurreikusten den eragina 63,5 milioi eurokoa da: 25,5 milioi euro lehenengo urtean eta 38 milioi euro hurrengo ekitaldietan.

Eragin honetan pisurik handiena duena da ezabatzen diren kenkariak: 47,9 milioi euro gutxiagoko kenkari aplikagarriak izango baitituzte enpresek. Eta hori, azken urteotan krisiaren eragina dela-eta zenbateko horiek asko jaitsi direla. Esaterako, orain ezabatzea proposatzen diren kontzeptuengatik 2011. ekitaldian 69,9 milioi euroko kenkari aplikagarriak sortu ziren, 2012an baino 22 milioi euro gutxiago.



Taula 2. Eragina zerga-bilketan guztira

	Eragina zerga-bilketan		
	2014	Hurrengo ekitaldietan	Guztira
Salbuespena aparteko mozkinen berrinbertsioarengatik	371.794	1.230.299	1.602.093
Finantza gastuen kengarritasunaren mugak	5.892.610	-5.892.610	0
Zenbait partaidetzen narriaduragatik kenkaria	4.047.207	0	4.047.207
Merkataritza fondoaren kenkaria	456.651	0	456.651
Karga tasak 24 /%28	2.776.914	0	2.776.914
Karga tasak %18 /%20 (kooperatibak)	-79.615	0	-79.615
Mikroenpresak: %10eko hobaria kuotan	-2.596.872	0	-2.596.872
Mikroenpresak: ezarpen bikoitzeko kenkaria	81.023	0	81.023
Kooperatibak: hobaria kuotan	2.997.748	0	2.997.748
Kooperatibak: ezarpen bikoitzeko kenkaria	983.126	0	983.126
Kenkaria kapital-arriskuko sozietate eta fondoei egindako diru-ekarpenengatik	77.376	116.065	193.441
Kenkaria teknologia garbietan egindako inbertsioengatik	23.268	34.902	58.170
Kenkaria ikerkuntza eta garapen jarduerengatik	6.336.705	7.892.064	14.228.770
Kenkarien ezabapena (*)	13.272.217	34.648.401	47.920.619
Muga kenkarien aplikazioan	8.485.912	0	8.485.912
Inbertsio eta enplegu erreserba berezia	-13.827.033	0	-13.827.033
BANAKAKO NEURRIEN BATUKETA GUZTIRA	29.299.033		
NEURRI GUZTIEN BATUKETA BATERA	25.441.553	38.029.121	63.470.674

Zenbatekoak eurotan

(*) Azken urteotan sortutako kenkari aplikagarriak asko jaitsi dira. 2011n 69,9 milioi euro ziren, eta 2012an 47,9 milioi euro.



5. GENERO ERAGINA

5.1. Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztu behar dela eranskin gisa.

5. 2. Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurrien identifikazioa.

Aurreproiektu honetako neurri guztien artean badira pare bat oso berritzaileak direnak. Izan ere, lehen aldiz mota honetako zerga batean genero berdintasuna bultzatzen da.

Alde batetik, Inbertsio eta enplegu erreserba gauzatu ahal izango da, besteak beste, esparru honetan: emakumeentzako enplegua sortzea eta beraien lan baldintzak hobetzea; familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea eta erantzukizunak partekatzea; sexu-jazarpeneko egoeren aurkako prebentzio eta esku-hartze ekintzak bultzatzea, eta enpresaren berdintasun planean zehaztutako beste ekintza estrategiko batzuk sustatzea.

Bestalde, Ikerketa eta Garapeneko kenkaria aplikatzeko lehen aldiz hainbat betekizun ezartzen dira berdintasuneko politiken ikuspegitik.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

Neurri horiek berriak direnez, ezinezkoa da ezagutzea zenbat enpresa bilduko diren beraietara. Dena den, izatekotan eragin positiboa izango dute genero berdintasunaren ikuspegitik.

Aurreproiektuko beste neurri guztiak Sozietate edo entitateei zuzenduta daude, eta ez pertsona fisikoei. Beraz ezinezkoa da generoari buruzko eraginaren kuantifikazioa egitea.

Donostia, 2013ko urriaren 30a

AZTERLANETAKO ATALBURUA

ONIRITZIA
ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA